

Españaer Gobernuak uko oraindik ere Gipuzkoak Unibersidade bat izateko eskubideari

Alderdi, 273. zk., 1972-03.

Adigarria izan da, nolabait esateko, gobernuko ordezkoen arritasuna Gipuzkoan jakin dutenean beraien nagusiek ostera ukatzen diotela Gipuzkoari onen unibersidadea. Zehazki diogu Gipuzkoa, emen bertan asarrerik biziena sortu bait-du erabaki orrek. Ori bai, ez dugu ahaztutzen Naparrak jarraitzen duela gobernuko presupuestotik bizi den Unibersidade-gaberik, eta Arabari ez zaiola ailegatzen ezta Opus Dei bera ere.

Zergatik arritzen dira? diogu guk (gazte gera, gazte, ta zer oroitu gutxikoak). Zergatik arritu Irugarren Aurrerabide Plan orrek euskaldunekiko zuzentasuna alde bat utzi duela-ta? Fede txar batek zuzendari oiei agintea eman zien bezala, zuzendari oiek fede txar baten ezagugarria ezarri diote delako Plan orri.

Gipuzkoarrantzat ez da arritzerik izan. Beste oiek zertaz arritu dira?

Frankismoari berriz ere "ahaztu" zaio maltzurki Gipuzkoaren izena atz-kolpe batez sei unibersidade berri sorterazi behar zituenenean Estaduaren lur-edaduran. Eta zer? Emengoa denarentzat zokoratze ori benetan txit gauza zaharra da. Egiaz, Gipuzkoa izan zen lehena Patronato bat izendatzeko emen unibersidadea sor zedin, eta Gipuzkoa gertatzen da ain zuzen unibersidade gabe geratzen zaiguna. Baiña zer? Uts eta gezurretan orren aspalditik gabiltza-ta. Euskaldunek zartakoak jasan beharra ez da gauza berria aizea egoaldetik etortzen denean batik bat. Bizkaiarentzat, egia, begiramen gehiago izan dute, arrisku beltzagoa izango zen ba arri ere ukatzea, bizi-lagunez, ekonomiaz eta beste gaiez alako garrantzikoa Bizkaia izaki.

Donostia-ko Deretxoko Fakultadea zurtz eta bakarti gelditu zaigu. Zeinen mende ifiñiko zuten? Milla arrazoiengatik Bilbao-koarekin elkartuta egotea zegokion: anaitasun-lokarriengatik, 111 kilometrorra egoteagatik eta abar, baiña bai zera, Valladolid-ekoarekin uztartu digute. Zenbat eta urrutiago, orduan eta obekiago. Erosoago aurkitu dute 400 kilometroko bidea, ez aldamenekorik izatea, zernahitarako ara jo beharra. Euzkaldun ez den guztia arrituko da onelako jokabideaz. Euskaldunik ez da ordea arrituko. Oso jarriak gaude ortara. Santander-i eman diote Unibersidadea, Bilbotik gertu ta Oviedo-tik ez 400 kilometrorra dagoena. Esan dezagun ere elkarren ondoan dagozten beste probintziei ere eskuratzen zaizkiela Unibersidadeak, oien artean Malaga, Granada, Cordoba ta Murcia (ondo egiña!). Eta guri batez. Zer esan? Erizkeri, berezkeri oiek erakusten dute behe ortan diguten maitasuna. Gauza berririk ez.

Oraingoan ez da euskadunak zapal-beharrez ari direnean, euskaldunen ezkeria edo ajolarik-eza, oraingoan, ama-ordearen zapuzkeriak utzirik, arritzen eta asaldatzen diren oietara joan behar, españaer Gobernuaren semeetara, atz-eragiñez, belaunikatuta, izendatuta daudenetara, presupuestotik biziiaz mardul eta arro egin direnetara, mundu guztiak dakien arren laguntza ori gora-behera alferrik ibilliko lirakela Gipuzkoa-ko

edozein errian idazkari edo kalegarbitzaille izateko erritarrek aukeramen librez autatu behar balituke.

Eta zer da orain gertatzen dena? Ez bakarrik arritu ta sutan jarri direla. Bai bait-da gehiagorik ere. Madrid-eko okerkeriaren aurka agertuaz, esaka ari dira ez uzteko orrelakorik gertatzen, ez eramateko pakean, ez amor emateko.

Ez amor emateko? Nork nori gero?

Izketa oiek entzunez, ba-dirudi geu gerala errudunak, euskaldunok, gipuzkoarrok (kanpotik etorriak ere lur au maite baldin badute). Frankista ordezkari arro oriek onela diote. "Gipuzkoarrak bezala (beren buruak nunbait gipuzkoar jotzen dute) lotsatzen gara ikusirik auzoko probintziek, eta Santander-ek, eta Burgos-ek eta Cordoba-k eta Badajoz-ek egiten dutena, eta gerok egiten ez duguna". Eta aurrera darrai Javier Arzuaren jantziplean dabillen Molina Plata delakoak: "Lotsak berriro gorritzerik ez duela, odolak ibilli oietarako aiña indar ez duelako, gure Gipuzkoa etsia dagoela dirudita, erabat lepo egiña dagoela espirituzko aurrerabide kamuts eta kaskarpean, Iruña, Bilbo ta Valladolid-eko ikas-kolonia gisa bizitzera..." (La Voz de España, 16-11.71.)

Nun uzten dute Madrid?

Eta lotsagabekeriz gehitzen du: "Eskarrikasko, Opus Dei. Eskarrikasko, Jesus-en Lagundia. Eskarrikasko Valladolid-eko Unibersidadea. Eskarrikasko guztiei, baiña adiñekoak gara, eta irakaskuntzan maillarik garaiena eduki nahi dugu, unibersidadekoa, or asten bait-da, egokiro mintzatuaz, zientzia bera. Ote da jende elduak ez garela, betiko morrontzara kondenaturik gaudela?"

Azal gaitza behar du iñolaz ere menderatzailleen ordezeko batek orrela itzegiteko, zapalduen kontzientzia aren arazoa izango balitz bezalaxe. Ausarkeri larriegia.

Argi dago jauntxo oriek gure etxearen jaun eta jabe sentitzen direla. Egia esango ba'dugu lotsagabekeri orren erru guztia, ezta Gipuzkoak Unibersidadea ez edukiarena, ez da España-ri ez frankismoari egoztekoa. Frankismoarena bai erantzukizun saiets-eziña euskaldunok daramagun kultura-ilketa iguingarri onengatik, berak piztu zuen guduarengatik, egin zituen ildakoengatik, erbesteratzeengatik, giltzapeengatik ta erein zituen gorroto oroengatik.

Baiña ondamendi-sare oso au zabaltzerik ez zuen izango bertako zenbait euskaldunen laguntzarik gabe: gobernu orren laguntzaille egin diranena, atz-eragiñez, keiñu batez Madrid-en egin-da izendaturik gelditzen direnak erriak ezertxo jakiteke, ta dirua neurritz gora kobratzen dutenen laguntza etengabea.

Europa-ko Sarkalde edo Mendebalean ari duen diktadura zanpatzailleenari beren gogoak saldu dizkiote euskaldun auk, eta doillorkeri ortatik bizi dira, bost ardua zaielarik giza-eskubide baliotsuenak ukatzen baldin bazaizkie, kulturabideak ostu, ta lur onatako seme-alabei dagokien unibersidade-eziketarako oztopoak eta esiak pillakatzen ba'zaizkie ere. Tankera ortako zenbait euskaldun diruz bete dira erri onen bizkar, eta artean erri onixe kontatzen dizkiote Erri-Adiskideen Euskal Bazkunak nolako meritoak dituen bi mende ezkeroz. Obe luteke Azkoiti-ko Zalduntxoek Euskal Erriaren ekonomia ta kultura azitzerako egin zutenaren zati txiki bat oraingo oiek egingo ba'lute.

Errua, bai, euskaldun auena.

Or dago Aristrain bat, gobernu onek sakelak ederkitzo bete dizkion diruz edo urrez. Sobratzen zaizkio milla milloi pezeta ezer egiten ez duen Fundazio batean gorderik

edukitzeko. Bein onengana agertu zen batzorde bat Donostia-ko Unibersidade-Fakultade baten alde mintzatzera joana. Eta Aristrain trapu-biltzaille arlote onek ausardia izan zuen ola erantzuteko: "unibersidadea... zer da ori gero?"

Zalantzarik ez, erru guztia ez dela diru-truke saldu diren Aristrain arrazako oriena. Kultura-eriotze ontara kondenatu-ta gauzkaten kateak klase diferenteetakoak dira. Batzuek emendikan laguntzen. Bestek andikan tiraka. Errudun asko ikus ditekete. Bai bait-dira salda zikin ontan igarian arras ongi dakitenak, nahasian gizentzen, ezin-biziak sorrerazten.

Madrid euskaldunontzat epaile ta erabakitzaile zitala gertatu ohi zaigu.

Egun auetan egunkari frankistek berek gogorazi diguten bezala norik ez daki Madritar gobernuaren agindu lotsagarri batez itxi zutela Oñati-ko Unibersidadea? Madrid-eko zezen-plazan illak zituzten ordurako orren antzeko zezenak. Adibidez, Napar-Erreinuaren Sendakintza-Ebakuntza-Osagaigintza-Kolejioa istera behartu zuten Euskalerriko Fueroren zapaltze lotsagarria 1839-an gertatu-ta berehala. Adibidez, Gazteiz-ko Unibersidade Librea egin nahi izan zenekoan, edo ta Bizkaiko Unibersidade Katolikoaren azia erein zeneko artan. Berdintsu be Iruña-n eta Donostia-n gertaturiko beste garaietan.

Aipatutako kasu orietako batean ere ez zen gertatu diru faltarik. Borondate falta gogorra bai izan zen presupuestoak dantzatzen zituztenen artean, Furoei lau tiro emanaz geroz. Oroi dezagun Larregla-k bere liburuan esaten diguna: esan bezala Iruña-ko Sendakintza-Kolejioa errege-aginduz itxi zuten urte berean Madrid-en ofizialki iriki zuten lehenengoz Zezenketa-Eskola.

Ez orduan, ez orain injustizi oiek diru-ezaz ez dira. Eza, ahaztutzea, zokora-beharra beste klasekoak dira.

Mundu guztiak daki ikaslez jositako Madrid ortan Unibersidade berri bat sortu dutela. Baiña 1967-ko urrillaren seian egindako kronika batean Emilio Romerok ola zion: "Madrیدهko Unibersidadean biltzen dira goi-maillako irakaskintzako españar ikasleen ia erdia". Eta orduango Unibersidade-Erretorrak esandakoa ifintzen zuen: "Sinistarazi behar zaie sendi-gurasoei beren seme-alabentzat mesedegarriago ta merkeago izan ditekela beren eskualdeko edo inguruko Unibersidadean ikastaldiak egitea".

Bai, emen sinistarazi-ta gaude. Gobernuaren ordezkari ta morroiak berak sinistarazi-ta dagozte. Baiña jokoan interes gaitzak sartzen dira-ta nunbait. 35 urteko pake-gabeko gudu onetan (itzaldi berritzen digutenez) ego-aldeko nahikeri zaharrek atzera jo behar ta atzera jo nahi-ez, zuzentasunera makurtu behar eta au nekezkoa gertatzen nunbait.

Buenos Airesen argitara emana den "Santxo Aundia, Euskaldunen Errege" liburuari Justo Garate jaunak ezarritako itzaurrean onela dio: "Gudua baiño lehen entzun ziola Royo Villanovari esaten, Valladolid-eko Pradera Antzokian, Unibersidadea Bilbo-n sortuez gero Valladolid-ekoa itxi behargo zela ikasle-ezaz". Garate Jaunak berak kontatzen du bere adiskide Cruz Gallastegi-ri eskatu izan ziotela behin izena eman zezala Santiago-ko Zientzia-Fakultadean (artean egiazko ikaslerik bat ere ez zedukana) profesoreen itxura on eta alegerei eusteko". Eta gaiñeratzen du Garate jaunak: "Bitartean Euzkadi-n Unibersidade-Fakultadeak ukatu egiten zitzaizkigun, eta auek eskatze

utsagatik zigorpe gogorrez astintzen zuten erria 1922-ko udaberri artan. Leizaola-tar Josu Miren –gaur erbestean Euzkadi-ko Gobernuaren Lendakari dena– ta R. Ramirez Olanokoa lotu-ta eraman zituzten oiñez Gernika-Bilbo bidezabalean barrena".

Ondorioz, ez da kontu au ez egungo ez atzoko gutizia, saputza edo kasketaldia. Ez da bat-bateko ahaztutze edo zigortatea, ez. Madrid-aldetik aize garbi gutxi etortzen zaigu, ta zitalkeria, ostera, zitalkeriaren gaiñean ugari.

Jakin, guztiek dakite Gipuzkoan-n sendo lan egin eta diru gaitza kreatzen dela. Españar Estaduren kutxak diruz gaiñezka egon ditezen gehienek ematen dugunak –edo kentzen digutenak– geu gara. Milloidun asko dugu geure artean. Erdiko-klase aisetasunean bizi dena ere ba-dugu. Langille-klasea or ibiltzen da amar-amabi ordu sartuaz, pluriempleoaren morrontza estuan, katigu artua. Orraitiño beste lurraldeetan baiño lasaxeago bizi da. Ugaltzen den dirupilla ori ote dago gipuzkoar gaztedi ikas-zaleak behar-beharrezko duen Unibersidadearen zerbitzurako? Atzen ikastaroan 29.853 batxiller izan dira Gipuzkoa-n (ikus "Agenda Estadística Provincial", Gonzalez Cabusta y Ruiz Cerveró-na) eta beroietatik 645 baiño ez dira izan Unibersidade-ikasgoak jarraiki ahal izan dutenak, España-n 170.000 unibersitario izaki, eta urtero 30.000-tik gora sartzekoak. Orrez gain, zer esanik ez, Unibersidade-maillan sartu diren 645 oietatik gehienak ez dira langille-sendien seme-alabetakoak, naiz-eta auek lan gutxiago egiten dutenak bezain argiak izan.

Beraz, bada, badago behar den diru moltzoa.

Eta dirua baiño premiazkoago den kontzientzia ere, ba-dago.

Unibersidadea zuzentasunez eskatzen duela kontzientzia du gure erriak.

Nor da emen kontzientzi ori ez duenik?

Euskal gaztedian, eta oraingo gure kasuan gipuzkoarra, Unibersidadeen beharrean dago. Ezin esan, lehen bezala, "españar gisako señoritoak" egiteko Unibersidadea lujo bat denik. Unibersidadea lan-etxe aundia besterik ez da, erri baten ahalmen eta gaitasunak indartzeko ta prestatzeko jarria.

Gure lurpearen meatzak eta emanak antzutu diranez geroz bizkortasun eta argitasun osoz saiatu behar dugu geure lan-indar, giza-kemen eta gazte-bultza guztiak bildurik eta ondoen erabillirik Euskal-erriaren iaiozte ta emankortasun aundiena ekar dezagun, munduaren aurreratze teknikoaren arian, sekulan atzereak egon ez, baizik berezko dituen merkatuei eutsi dezaigun.

Unibersidade bat nahi dugu, gai den nornahi, bere jatorri edo maillari begiratzeko, artaraiño aillega dedin, artan bere izatea eldu ta osa dezan.

Unibersidade bat nahi dugu, artan Mitxelena, Zubiri, Barandiaran, Oteiza ta Txillida ta auen maillekoek izan dezaten egoki oparoa beren maisutasunak erriaren zerbitzuan zabaltzeko, erri-maitale izanik beren jakituriak barreiatu gabe an-emenka, Euskalerrriak gaurko egoeran aterpe garbirik ez bait-die eskeintzen.

Eta guzti au askatasunean nahi dugu. Ezertarako ona ez dugu Unibersidade lotua, inbestigatzeko askatasunik gabea. Librea nahi dugu, askatasun-giroz errotoa aurrean dugun ainbeste prolemei arpegi eman dezaien, ekonomia, industria ta gizagogo-alorretan.

Nahi dugu ta, behar dugu-ta, Unibersidade bat erne-miñetan datorkizun gizarte berrian geure erriak nolako lekua edukiko duen ager dezaigun.

Geure izaera espiritualaren kontzientzia aurkitzen lagun dezaigun.

Jakite unibersalaren egoaz gaiturik, askatasun-Europa-ren politika elburuekin bat egiten zirika gaitzan.

Geroago ta estuago ta ezinbestekoago bihurtzen ari da gure erriarentzat unibersidade-giro bizia sorteraztea, zientziaren lantzeari emana (soilla dela naiz bizitzarakoa, jakite uts garbia edo aplikatua). Goi-ikasgoen etxe ori munduari atezabalik egongo litzaioke, geure erri Euzkadi-k erakartzen eta ezartzen dizkigun problema berezientzat begirik itxi gabe.

Goi-maillako eziketa-mintegia edo biltegia, bertan ikas ahal izan dedin, oroituaz estudiatzea ez dela ezagutzak pillakatze bat, baizik erriak behar duen bezalako goi-maillan gizon-emakumeak ezitzea, anima, buru ta teknika aldeetatik.

Ortarako alperrezkoak dira frankista ordezkoen itz uts arrituak. Ortarako beharrena de bide ederrak zabaltzea Unibersidade bat askatasunean benetan izan dezagun.

Braulio Leiza [Martin Ugalde]